

BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Garrantzi handiko laguntza ikastetxea izango da, gure salmentak gehien ikastetxean izango direlako. Pentsatu dugu ideia ona izango litzatekeela ikastetxeak ordenagailuak saltzerako momentuan, adibidez, batxilergoko ikasleentzat, ordenagailuarekin batera gure euskarria saldu ahal izango genuke, 10%ko deskontua eginez. Gainera interesa handituko litzake ikastetxeak aipatuko balu ingurumena zaintzeko mugimendu bat dela gure euskarria ekologikoa delako.

Beste metodo bat kurtsoen hasieran, eskola liburuak saltzean, gure soportea erosteko aukera ematea, erosotasuna hobetzeko balio duela aipatuz, ikasleak kurtsoan zehar portatilarekin denbora dezente pasatuko dituela esanez. Gainera, soportea puskatzen badira errazak dira konpontzeko eta honela kurtso guztia aguantatuko dute.

Aliantza garrantzitsuena gure ikastetxearekin daukagu eta gainera diru ahalik eta gehiena irabazteko, konturatu gara eskolak garrantzia asko ematen diola teknologia berriei eta ikasle gehienek ordenagailu portatilak eramaten dituztela. Gainera batxilergoko mahaiak neurtu ditugu eta ikasleen altuera media atera dugu eta neurri hauekiko erosoan diren neurriak atera ditugu eta gure produktuan aplikatu ditugu.

